

Iruzur fiskala

Ogasunaren ezkutuko amnistia

Espainiako Gobernuak diru beltza %10eko interesarekin zuritzeke ezarri duen amnistia fiskala lehendik ere bazegoen nolabait. Ogasunak askotan nahiago izaten du iruzurgileekin diruaren itzulketa adostea auzitegietara jotzea baino, eraginkorragoa delakoan.

DANIEL UDALAITZ

HEGO EUSKAL HERRIKO OGASUN gehienek garbi adierazi dute ez dutela aplikatuko Espainiako Gobernuak agindu duen amnistia fiskala. Diru beltza erregularizatzeko aukera eman du Rajoyren Gobernuak, %10eko interesa baino ez kobratuz. Modu horretan, 2.500 milioi euro eskuratu nahi ditu azaroaren 30erako. Foru administrazioetatik iruzurgileak saritzea leporatu diote Espainiako Gobernuari, Bizkaiko ahaldun nagusiak, esaterako, “etikoki onartezina, politika defendaezina eta sozialki bidegabea” dela adierazi zuen.

Baina egiaz, amnistia fiskal moduko bat jada aplikatzen dute ogasunek, iruzurgileekin dirua itzultzeko neurriak hitzartzen dituzten heinean. Kasu larrietan kartzela saihesteko akordio lotsagarriak izan dira gainera. Esaterako, hortxe dugu Praxair multinazionalaren adibidea. Espainiako Ogasunari 164 milioi euroko iruzurra egin ziola onartu zuen; bada, 13 zerga delitu egin arren, bere arduradunak ez ziren kartzelatik pasa, administrazioarekin hitzartu eta gero 264 milioi euro ordainduko zituztela. Ez dago dirua edukitzea bezalakorik. Gure herrietako “ohiko gaizkileei” aplikatzen zaien politikarekin erabat kontraesanean dago hori: biltegi batean lapurtzen duenari lapurreta leporatzen diote, eta isuna ordaintzea ez da nahikoa espetxea saihesteko. Zuzenean kartzelara joango da.

Espainiako legedia –eta honenbestez Hego Euskal Herrikoa– oso lasaia da zerga delituei dagokienez –PPk esku artean duen lege proiektu



Iruzurgileekin dirua itzultzeko neurriak hitzartzen ditu sarritan Ogasunak.

tu barne—. Herrialde askotan, esaterako Alemanian, AEBetan eta Herbehereetan, iruzur egiteko asmoa hartzen da kontuan delitua den hala ez erabakitzeke, ez diru kopurua. Aldiz, Espainiako Estatuan 120.000 eurotik bera ez dago zerga deliturik, eginbidea ez betetzea baizik, eta horrek isuna ekar dezake, baina ez kartzela zigorra.

Iruzur fiskalak egoera larria sortu du. Hego Euskal Herrian urtero 13.000 milioi euroko iruzurra gertatzen dela kalkulatu izan da, BPGaren %15-20 inguru. Azken urteetan foru ogasunek ardura handia izan dute iruzurra pertsegitzeko: Gipuzkoak 2011n 312 milioi euro azalerratu zituen, Bizkaia 560 milioi euro, Arabak 96 milioi euro eta Nafarroak 88 milioi (2011ko abuztura arteko datua). Guztira: 1.056 milioi euro.

Jakina, azalerraturako iruzurraren zenbakiak oso txikiak dira, kalkuluaren arabera saihestutako 13.000

milioiekin alderatuta. Administrazioen arteko koordinaziorik eza izan daiteke arazoaren arrazoietakoa bat.

Espainiako Estatuak 2010ean 3.000 aberatsen kontuak atzeman zituen Suizan, zer gertatu da haiekin? Eta horien artean dauden 300dik gora euskal herritarrekin? Eta banku batean zeuden 6.000 milioi euroekin? Espainian sektoreko ordezkari gehien biltzen duen Ogasun Ikuskarien Erakundearen arabera, “fiskoak, kasuak zuzenean auzitegietara eramanez, zenbaterako horien borondatezko erregularizatzeko eskatzea eskandaluzko faboritismoa da”. Haien ustez, Ogasunaren jokaerak “zerga amnistia” kutsua du. Bada, azaroaren 30ean PPren amnistia fiskal “ofiziala” amaitzen denean, amnistia fiskal ezkutuko honek segituko du. ■

